## OÑATIKO XVIII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN OINARRIAK.

1.- Lehiaketa honetan Oñatiko denda edo zerbitzu guztiak parte hartu ahal izango dute. Partehartzaile bakoitzak 50€ko laguntza jasoko du materiala eta argindarra ordaintzeko.

2.- Izen ematea Oñatiko Udalaren erregistroaren bitartez egin beharko da; honekin batera bidaltzen den izen emate orria beteta eta dirulaguntza jasotzeko kontu korronte zenbakia adierazita. Izen emate orriari udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan edo udalaren erregistro elektronikoaren bidez eman beharko zaio sarrera. Izen emate eta erakusketaren epeak deialdian zehaztuko dira.

3.- Erakusleihoan, denda-zerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dira.

4.- Sariak Oñatiko Udalak emango ditu eta honela banatuko dira:

- *Lehenengo saria ...............500€*
- *Bigarren saria .....................300€*
- *Hirugarren saria.......................200€*
- *Herritarren saria............... 500€*
- *Haurren saria .........................300€*

5. Lehenengo hiru sariak epaimahaiak aukeratuko ditu. Epaimahai hau erakusleiho-apainketa arloko adituek osatuko dute. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da.

6.- Erakusleihoen balorazioa egiterakoan, epaimahaiak kontutan izango dituen irizpideak hauek izango dira:

- *Konposizioa.*
- *Argiztapena.*
- *Koloreak.*
- *Originaltasuna.*

## BASES DEL XVIII CONCURSO DE ESCAPARATES DE OÑATI.

1.- Podrán tomar parte en este concurso todos los establecimientos comerciales o de servicios de Oñati. Cada participante recibirá una ayuda de 50€ para costear el gasto de material y luz.

2.- La inscripción tendrá que realizarse a través del registro del Ayuntamiento de Oñati; se deberá rellenar la hoja de solicitud adjunta e indicar el número de cuenta corriente para recibir la ayuda. A la hoja de solicitud se deberá darle entrada en el Servicio de Atención Ciudadana del ayuntamiento o a través del registro electrónico. Los plazos de inscripción y exposición se concretarán en la convocatoria.

3.- En el escaparate se expondrán los productos propios del establecimiento comercial o de servicios.

4.- El Ayuntamiento de Oñati aportará los premios siguientes :

- *Primer premio ...........500€*
- *Segundo premio ...........300€*
- *Tercer premio..................200€*
- *Premio popular........... 500€*
- *Premio infantil................300€*

5.- La elección de los tres primeros premios corresponderá al jurado, que estará compuesto por personas expertas en el ámbito de decoración de escaparates. La decisión del jurado será inapelable.

6.- A la hora de realizar la valoración de los escaparates, el jurado tendrá en cuenta los siguientes criterios:

- *Composición.*
- *Iluminación.*
- *Color.*
- *Originalidad.*

7.- Herritarren saria bozketa bidez aukeratuko dute Oñatiko herritarrek. Bozka gehien jasotzen duen erakusleihoa izango da sari honen irabazlea.

Herritarren sariaren aukeraketa internet bidez egingo da. Abenduko Kontzejupetik aldizkarian, udalaren web orrian eta parte hartuko duten erakusleihoetan jarriko dira bozkatu ahal izateko QR kodeak. Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Bozketan parte hartzeko epea deialdian zehaztuko da.

Herritarren sariaren bozketan parte hartzen duten pertsona guztien artean, Oñatiko saltokietan gastatzeko 100 euroko bonu bat zozketatuko da.

8.- Haurren sariaren irabazlea bozketa bidez aukeratuko dute Oñatiko haurrek. Bozka gehien jasotzen duen erakusleihoa izango da sari honen irabazlea.

Haurren sariaren aukeraketan 5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrek parte hartu ahal izango dute. Abenduko Kontzejupetik aldizkarian banatuko dira bozkatzeko orriak eta Txaloka ludotekan eta Gaztelekuko Sotoan eta Kuboan egongo dira botoa emateko hautestontziak. Haur bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Bozketan parte hartzeko epea deialdian zehaztuko da.

Haurren sariaren bozketan parte hartzen duten pertsona guztien artean, Oñatiko saltokietan gastatzeko 100 euroko bonu bat zozketatuko da.

9.- Sari banaketa ekitaldiaren data eta ordua deialdian zehaztuko dira. Sariak sarituak izango diren saltokietan bertan emango dira jakitera.

10.- Oñatiko Udalak, Nisae - Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta

7.- El premio popular se elegirá por votación de los ciudadanos y ciudadanas de Oñati. El escaparate que obtenga más votos será el ganador de este premio.
La participación en la elección del premio popular se realizará a través de internet. Los códigos QR para votar se publicarán en la revista Kontzejupetik de diciembre, en la página web del ayuntamiento y en los escaparates participantes. Solo se aceptará un único voto por persona. El plazo para participar en la votación se concretará en la convocatoria.

Entre todas las personas que participen en la elección del premio popular se sorteará un bono de 100 euros para gastar en los comercios de Oñati.

8.- El premio infantil se elegirá por votación de los niños y niñas de Oñati. El escaparate que obtenga más votos será el ganador de este premio.

Podrán participar en la elección del premio infantil los niños y niñas de entre 5 a 12 años de Oñati. Los recortables para votar se repartirán en la revista Kontzejupetik de diciembre y las urnas para votar estarán ubicadas en la ludoteca Txaloka y en el Sótano y Cubo del Gazteleku. Sólo se aprobará un voto por persona. Bozketan parte hartzeko epea deialdian zehaztuko da.

Se sorteará un bono de 100 euros para gastar en los comercios de Oñati entre todas las personas que participen en la elección del premio infantil.

9.- La fecha y hora del acto de entrega de premios se concretará en la convocatoria. Los premios se darán a conocer en los comercios que vayan a ser premiados.

10.- El Ayuntamiento de Oñati realizará mediante Nisae - Nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi, las

kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horretaz gain, zerbitzuaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu.

comprobaciones y consultas necesarias de los datos de las personas interesadas que obren en poder de la Administración, así como cualquier otra requerida para la tramitación administrativa del presente servicio. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, deberá aportar los datos o documentos correspondientes.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administraziok egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administraziori emandakoak.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Administraciones Públicas se concrete en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por la persona interesada a cualquier Administración.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikuluak adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

Oñatiko Udalak honako zerbitzuak kontsultatuko ditu Nisae Euskadiko administrazioen segurtasunerako eta elkarreragintasunerako nodoaren bidez:

- Gipuzkoako Foru Aldundia: Zerga-betebeharren ordainketa egunean edukitzea kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia: GSND-arekiko betebeharren ordainketa egunean edukitzearen kontsulta.

El Ayuntamiento de Oñati va a consultar los siguientes servicios a través de Nisae - Nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi:

- Diputación Foral Gipuzkoa: Consulta de estar al corriente de obligaciones tributarias.
- Tesorería General de la Seguridad Social: Consulta de estar al corriente de pago de obligaciones con TGSS.

11.- Lehiaketa honetan parte hartzen duenak oinarri hauek onartu beharko ditu.

11.- Los participantes del concurso deberán acatar estas bases.